

EUSKAL AEKO ZERBITZUEN KOIUNTURAKO INDIZEA (ZKI) 2012ko 3. hiruhilekoa


Euskal AEko zerbitzu sektorean salmenta-indizea % 2,4 jaitsi da 2012ko hirugarren hiruhilekoan

Merkataritzako salmenten indizea % 1,0 jaitsi da eta beste zerbitzu batzuetakoa % 4,6

Euskal AEko zerbitzuen sektorea: Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko zerbitzu-sektorean salmenten indizeak % 2,4ko jaitsiera nominala izan du 2012ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, eta estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean, salmenten indizeak % 3,7ko igoera nominala izan du.

1. grafikoa. Euska AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea. Urte arteko aldakuntza-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea (ZGK)

Sektoreka, merkataritzako salmenten indizeak % 1,0ko jaitsiera nominala izan du 2012ko hirugarren hiruhilekoan, eta indizean parte hartzen duten beste zerbitzuetan, berriz, % 4,6 murriztu da, 2011ko epe bereko datuekin alderatuta.

Merkataritzaren barruan, Ibilgailu motordunen salmentaren eta konponketaren arloaren egoera txarra nabarmentzen da, % 6,2ko jaitsiera nominala izan baitu. Handizkako merkataritzak % 0,2 egin du gora, eta Txikizkako merkataritzak, aldiz, % 1,1eko jaitsiera izan du.

Beste zerbitzuak osatzen dituzten sektoreetan, jaitsiera handiagoak edo txikiagoak ageri dira. Administrazio jardueren eta zerbitzu osagarrien sektorean beherakada % 8,8koa izan da, Informazioan eta komunikazioetan % 5,7koa; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan emaitza negatiboa % 5,2koa izan da, Garraio eta biltegitratze arloan % 3,8koa, eta Ostalaritzan % 3,3ko jaitsiera izan da.

Lurralde historikoei erreparatuta, salmenten indizearen beherakadarik handiena Araban izan dute, % 3,2koa, hain zuzen ere; bien bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan jaitsiera % 2,3koa izan da.

Kopuru errealetan, prezioen eragina ezabatuta, zerbitzu sektoreko salmentek % 4,6 egin dute beherantz hirugarren hiruhilekoan

Merkataritzan, salmenten indizea % 3,3 murriztu da, eta beste zerbitzuetan jaitsiera % 5,6koa izan da, 2011ko hiruhileko beraren aldean eta prezio konstantetan.

Merkataritzaren barruan, urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira sektore guztietan: Ibilgailu motordunen salmentaren eta konponketaren arloan % 8,6 jaitsi da, Handizkako merkataritzako salmenten indizea % 1,7 murriztu da, eta Txikizkako merkataritzakoak ere % 3,5 egin du behera.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. 3. hiruhilekoa. 2012(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-2,4	3,7	-4,6	1,1
Araba/Álava	-3,2	3,1	-5,1	3,4
Bizkaia	-2,3	4,2	-4,5	0,2
Gipuzkoa	-2,3	3,0	-4,6	1,8
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Merkataritza	-1,0	3,7	-3,3	3,1
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-6,2	0,0	-8,6	-0,3
Handizkako merkataritza	0,2	3,4	-1,7	2,0
Txikizkako merkataritza	-1,1	3,1	-3,5	0,2
Bestelako zerbitzuak	-4,6	0,7	-5,6	2,2
Garraioa eta biltegitratzea	-3,8	0,5	-7,3	-2,2
Ostalaritza	-3,3	-0,2	-4,0	0,2
Informazioa eta komunikazioak	-5,7	-0,3	-5,3	0,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-5,2	-1,7	-5,5	2,3
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-8,8	-1,6	-11,2	-1,7
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-5,2	-0,9		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizea (ZGK)

Beste zerbitzuen atalean, euro konstantetan, sektore guztiek izan dituzte beherakadak; % 11,2 murriztu da Administrazio jardueren eta zerbitzu osagarrien sektoreko salmenten indizea, % 7,3 Garraio eta biltegitratze sektorekoa, % 5,5 egin du behera Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoaren sektorekoa, % 5,3 Informazioaren eta telekomunikazioen sektoreko salmenten indizeak, eta % 4,0 Ostalaritzakoak.

Euskal Autonomia Erkidego osoan zerbitzuen sektorean lan egiten duten pertsonen indizea % 0,9 jaitsi da 2012ko hirugarren hiruhilekoan, 2012ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Prentsa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Datu-bankua